IKUSI AURREKONTUA
OSORIK HEMEN
VER PRESUPUESTO
COMPLETO AQUÍ



Urnietako tren-geltokia eta inguruko mugikortasuna hobetzeko azken fasea

Adifek Urnietako tren-geltokian esku hartuko du, instalazioetan eta inguruetan irisgarritasuna eta mugikortasuna hobetzeko. Hobekuntzaren bigarren eta azken fasea da, eta 794.526 euroko aurrekontua du. Inbertsio hori osorik Adifen kargura dago, Udalaren lanari esker; izan ere, batera finantzatzeko hasierako asmoa aldatzea lortu baitzuen.

Obrak bi nasetan markesinak handitzea aurreikusten du, horrela trenbideak kudeatzeko eraikin teknikoak integratuz. Egungo instalazioak espazio berrietara lekualdatuz, gaur egun dauden eraikina eraitsi ahal izango da, eta Geltoki eta San Juan kaleen arteko lotura hobetzea ahalbidetuko da.

Urnietako tren-geltokian lehen fase bat egin zen aurretik, eta, obra horiei esker, azpiko pasabide bat ahalbidetu zen nasen artean, igogailuen eta eskaileren bidezko sarbidearekin. Azpiko pasabide horrek hiri-erabilerarako konexio gisa ere balio du, udalarekin adostu zen bezala, herritarren eta erabiltzaileen zirkulazio-fluxuak nahastu gabe.



Ultima fase para la mejora de la estación de tren de Urnieta y la movilidad de su entorno

Adif intervendrá en la estación de tren de Urnieta para favorecer la accesibilidad y movilidad en las instalaciones y en su entorno. Se trata de la segunda y última fase de mejora y cuenta con un presupuesto de 794.526 euros. Inversión que corre íntegramente a cargo de Adif gracias al trabajo del ayuntamiento, ya que consiguió que se cambiara la intención inicial de cofinanciarla.

La obra contempla la ampliación de las marquesinas en ambos andenes, integrando así los edificios de gestión ferroviaria. Con el desplazamiento

de las instalaciones actuales a los nuevos espacios, se posibilitará la demolición del edificio en el que actualmente se alojan, y permitirá mejorar la conexión entre las calles Estación y San Juan.

En el apeadero de Urnieta se realizó previamente una primera fase y gracias a esas obras, dotaron a las instalaciones de un paso inferior entre andenes con acceso mediante ascensores y escaleras. Un paso inferior que sirve también como conexión de uso urbano tal y como acordó con el consistorio, sin que se mezclen los flujos de tránsito de la ciudadanía y de las personas usuarias.



BABILONIAKO ETXEBIZITZEN ERAIKUNTZA GERO ETA GERTUAGO DAGO

Beste urrats garrantzitsu bat eman da Babiloniako 32 HEA eremuan 340 etxebizitza eraikitzeke prozesuan, horietatik %75 babestuek. Urte amaieran, hasierako onarpena eman zitzaion Birpartzelazio Proiektuari, urbanizazioaren eta eraikuntzaren aurreko dokumentua. Beraz, 2026an hasiateko espero den eremuaren garapena gero eta gertuago dago.

CADA VEZ MÁS CERCA LA CONSTRUCCIÓN DE VIVIENDAS EN BABILONIA

Se ha dado otro importante paso en el proceso para construir 340 viviendas en el ámbito AIU-32 Babilonia, 75% de ellas protegidas. A finales de año se aprobó inicialmente el Proyecto de Reparcelación, documento previo a la urbanización y la edificación, por lo que, cada vez está más cerca el inicio del desarrollo del ámbito que se espera que comience este 2026.



EGAPE IKASTOLAKO LEIHOAK BERRITU DIRA, SEGURITASUNA ETA ENERGIA-ERAGINKORTASUNA HOBETZEKO

Urnietako Udalak 22 leiho aldatu ditu Egape Ikastolako Haur Hezkuntzako eraikinean. Esku-hartze honen bidez, ikastetxearen segurtasuna indartu eta eraginkortasun energetikoa optimizatu da, ikasleentzako ingurune erosoagoa eta egokiagoa lortuz.

RENOVACIÓN DE LAS VENTANAS DE EGAPE IKASTOLA PARA MEJORAR SEGURIDAD Y EFICIENCIA ENERGÉTICA

El Ayuntamiento de Urnieta ha sustituido 22 ventanas en el edificio de Educación Infantil de Egape Ikastola. Con esta actuación se ha reforzado la seguridad del centro y optimizado su eficiencia energética, contribuyendo así a un entorno más confortable y sostenible para el alumnado.

Hasi dira Urnieta eta Lasarte-Oria lotuko dituen bidegorri berriaren lanak



Comienzan las obras del nuevo bidegorri que unirá Urnieta con Lasarte-Oria

Las obras del nuevo bidegorri que unirá Urnieta y Lasarte-Oria comenzaron en diciembre y se prevé que tengan una duración aproximada de 8 meses. Por lo tanto, si los trabajos se desarrollan con normalidad tras el verano estará disponible la nueva infraestructura que mejorará la conexión entre localidades y fomentará la movilidad sostenible.

Este proyecto es fruto del trabajo conjunto entre instituciones y potenciará el uso de la bicicleta y los desplazamientos a pie. También servirá para acercarse a la naturaleza y disfrutar de este entorno privilegiado.

Además, la infraestructura está alineada con las políticas verdes que está implementando el consistorio y que tienen como prioridad el cuidado medioambiental y el impulso de las prácticas saludables.

Urnieta eta Lasarte-Oria lotuko dituen bidegorri berriaren obrak abenduan hasi ziren eta lanek 8 hilabete inguruko iraupena izatea aurreikusten da. Beraz, ondo bidean uda ostean erabilgarri egongo da herrien arteko konexioa hobetuko duen eta mugikortasun jasangarria sustatuko duen azpiegitura berria.

Proiektu hau erakundeen arteko elkarlaren emaitza da eta bizikletaren erabilera eta oinezko joan-etorriak bultzatuko ditu. Era berean, naturara hurbiltzeko eta ingurune pribilegiatu horretaz gozatzeko ere balioko du.

Gainera, azpiegitura bat dator Urnietakoa Udala aurrera eramaten ari den politika berdeekin, zeinak ingurumena zaintzea eta ohitura osasungarriak bultzatzea lehentasuna duten.



Esku-hartzea San Juan kalean espaloiak hobetzeko

Udala herritarrentzat espazio bizigarriagoak eta irisgarriagoak sortzeko lanean ari da, eta helburu horrekin San Juan kaleko bi puntuetako espaloiak hobetuko dira.

San Juan 21-29n inguru guztia berrituko da auzoa hobetzeko. Azken urteotan, hainbat igogailu jarri dira, eta, ondorioz, oinezkoentzako lehentasuneko gunek sortuko da.

Bestalde, San Juan 32-40n espaloiak berrituko dira eta lineako egungo aparkalekuak aldatuko dira bateriako aparkalekuak sortzeko, horrela aparkaleku-plazak handitzea lortuz.

Intervención en la calle San Juan para mejorar las aceras

El Ayuntamiento trabaja para generar espacios más habitables y accesibles para la ciudadanía y con ese objetivo se va a intervenir en dos puntos de la calle San Juan.

En San Juan 21-29 se renovará toda la zona para mejorar el barrio. En los últimos años se han instalado varios ascensores que dificultan el paso por lo que se creará un espacio de prioridad peatonal.

Por otro lado, en San Juan 32-40 se renovarán las aceras y se modificarán los actuales aparcamientos en línea para crear aparcamientos en batería, consiguiendo de esta manera aumentar las plazas de estacionamiento.



Aitor Iguaran:

"%90 edo gehiago etxeko sagardoa dugu eta oso puntu onean bildu genuen"

Aurtengo sagardo denboraldia berezia izango da Aitor Iguaran Eula sagardotegiko arduradunarentzat, izan ere, bertan egingo baita Urnietako denboraldiari hasiera emango dion ekitaldia. Data seinatuaren aurretik berarekin elkartu gara.

Denboraldi hasiera gainean da eta prestaketa lanetan murgilduta egongo zarete.

Sagardotegia garbitzeko eta txukun uzteko momentua da eta baita sagardoa trasegatzekoa ere. Dena prest utziko dugu denboraldia modurik onenean hasteko. Guk urtarrilaren 23an irekiko dugu, ostiralarekin.

Hasi al da jendea deika?

Jendea larunbat eguerditarako ari da deitzen. Hor dago eskaera handiena. Gainerako egunetarako aurrerago deitzen dute.

Larunbat eguerdietako eta gainerako jarduna oso desberdina, beraz.

Igande eguerdian ere izaten da mugimendua eta ostiral eguerdian ere pixka bat bai, jendea lanetik bueltan denean. Larunbat eguerdian kuadrilla handiagoak izaten dira. Halere, hau ez da diskoteka bat eta sagardoak izan behar du protagonista. Oso ondo pasa daiteke baina garrasirik gabe eta errespetuarekin. Igandetan familiak eta parejak izaten dira gehiago.

Zer abantaila du larunbata eguerdia ez den momenturen batean joatea?

Nik uste dut lasaiago egoten dela eta gehiago disfrutatzeko aukera dagoela. Beste giro bat izaten da.

Zer jasotzen duzue bezeroengandik?

Jendea gustora ateratzen da. Gu kalitatezko sagardoa eta janaria eskaintzen saiatzen gara, ahal den ondoen zerbitzatuz. Garrantzitsua da lana ondo egitea eta jendea gustura geratzea hurrengo urteetan berriro etortzeko.

Sagardotegiek badute zerbait berezia.

Niretzat luxu bat da. Batzuk esaten dute sagardotegia garestia dela, baina jatetxe batean gehiago ordaintzen da eta nire ustez xarma ez da berdina. Hemen egurrezko eta altzairu herdoilgaitzezko upeletegiak ditugu eta aukera hori ez da erraza. Eta txox-arekin sortzen den giroa ere desberdina da. Kanpotik etortzen den jendea harrিতuta geratzen da.

Nondik etortzen dira?

Kataluniatik, Madrildik, Extremaduratik, Logroñotik... oso gustura ateratzen dira.

Sagardo ekoizpen handiko urtea izan da?

Guk %90 edo gehiago etxeko sagardoa dugu eta oso puntu onean bildu

genuen. Barietate oso onak ditugu sagardoa egiteko eta oso gustura gaude. Probatu ditugu trasegatu aurretik eta kalitatea ona da. Kolore polita eta usain garbiak. Beti saiatzen gara mejoatzen.

Zertan?

Oso garrantzitsua da bilketa bere momentuan egitea, heldutasun puntu egokian eta baita tenperatura ere. Tenperatura betetzerako orduan, fermentatzerakoan eta baita mantentzeko ere.

Esan duzu ia sagardo guztia etxekoa duzuela, izan ere, sagasti ederra duzue.

5.000 sagarrondo eta hamar hektarea eta erdi, sasoi onean dagoena eta errendimendu ona ematen ari dena. Guk badakigu zein produktu dugun.

Baduzue nobedarerik aurtengo denboraldirako?

Gustura nago gure martxarekin eta berdin jarraituko dugu. Bakailao tortilla, bakailao fritjutura, txuleta, gazta eta intxorrak ematen ditugu. Eta etxeko sagardoa, noski.

Zein helburu dituzue aurtengo?

Ez dakigu zer pasako den eta hasi aurretik beldur pixka bat izaten da beti, baina orain arte azterketa aprobatu izan dugu eta aurten ere hala izatea espero dugu.

Zuretzat denboraldi berezi izango da, txotx irekiera ekitaldia zure sagardotegian izango baita.

Idea ona izan zen ekitaldi hauek egitea. Urnietan ere sagardotegi onak daude, sagardo ona egiten da eta jendeari ezagutzera emateko garrantzitsua da. Eta ilusioa egiten du aurtengo gurean izatea. Ekitaldi politikak izan ohi dira.

Lehen txotx-a herriko elkarteetako ordezkarek egingo dute, bertakoa eta bertako sagardoa kontsumitzen duena erdigunean jartzeko.

Ondo iruditu zait, kontsumidoreei protagonismoa ematea. Beraiek dira gure sagardoa erosten dutenetako batzuk eta polita izango da

Zer eskatzen diozu aurtengo denboraldiari?

Lasai joatea, jendea etortzea eta etortzen direnak gustura joatea.

Lehenengo "Txotx"-a Eula sagardotegian



Primer "Txotx" en la sidrería Eula

Urnietan punta-puntako hiru sagardotegi ditugu, gure eskaintza gastronomikoaren erreferente direnak. Horiek bultzatzeko, bertako produktuak sustatzeko eta herriko ondare kultural eta gastronomikoari balioa emateko, Urnietako Udalak sagardo denboraldiaren hasiera ekitaldia egingo du, herriko sagardotegiekin elkarlanean.

Herriko elkartek protagonista

Aurtengo ekitaldia Eula sagardotegian egingo da urtarrilaren 16an eta hortik aurrera eta apirilaren amaierara arte sagardotegi denboraldia garatuko da. Beraz, sagardotegiak azken xehetasunak fintzen ari dira, hasiera modurik egokienean emateko eta ahalik eta zerbitzurik onena eskaintzeko.

Aurtengo lehenengo "txotx"-a herriko lau elkarteetako ordezkariak egingo dute eta sarrera gonbidapen bidez izango da.

En Urnieta contamos con tres sidrerías punteras que son un referente de nuestra oferta gastronómica. Con el objetivo de impulsarlos, promocionar los productos locales y poner en valor el patrimonio cultural y gastronómico de la localidad, el Ayuntamiento de Urnieta celebrará una vez más el acto de apertura de la temporada de sidra, en colaboración con las sidrerías de la localidad.

Las sociedades locales protagonistas

El evento de este año se celebrará en la sidrería Eula el 16 de enero y a partir de ahí y hasta finales de abril se desarrollará la temporada. Así que las sidrerías están afinando los últimos detalles para dar el pistoletazo de salida de la manera más adecuada y ofreciendo el mejor servicio posible.

El primer "txotx" lo realizarán representantes de las cuatro asociaciones locales y la entrada al evento será por invitación.



Euskarazko literaturari bultzada Antia lehiaketaren bidez

Euskara, literatura, sormena eta idatzizko adierazpena bultzatzeko xedez, Urnietako Udalak On Manuel Antonio Antia literatur lehiaketaren edizio berri bat antolatu du. Aurten bi kategoría desberdin egongo dira, haurrera eta gazteena.

Haurren kategorian 2014ean, 2015ean edo 2016an jaiotako herritarrak edo herriko ikastetxe bateko ikasleek parte har dezakete. Sariak 200, 150 eta 120 euroko kultura-bonuak izango dira.

Gazteen kategorian berriz, 2010eko urtarrilaren 1a eta 2013ko abenduaren 31 bitartean jaiotako herritarrak edo herriko ikastetxe bateko ikasleek izango dute parte hartzeko aukera. Kasu honetan 500, 300 eta 150 euroko sariak banatuko dira.

Bi kategorietan lanak aurkezteko azken eguna martxoaren 20a izango da.



Impulso a la literatura en euskera a través del concurso Antia

Con el objetivo de impulsar el euskera, la literatura, la creatividad y la expresión escrita, el Ayuntamiento de Urnieta ha organizado una nueva edición del certamen literario On Manuel Antonio Antia. Este año habrá dos categorías diferentes, la infantil y la juvenil.

En la categoría infantil pueden participar los y las urnietarras nacidas en 2014, 2015 o 2016 o el alumnado de un colegio de la localidad. Los premios consistirán en bonos culturales de 200, 150 y 120 euros.

En la categoría juvenil por su parte, podrán participar los y las urnietarras nacidas entre el 1 de enero de 2010 y el 31 de diciembre de 2013 o el alumnado de un centro escolar de la localidad. En este caso se entregarán premios de 500, 300 y 150 euros.

El último día para presentar trabajos en ambas categorías será el 20 de marzo.

Urnietako kirolari eta taldeen lan bikaina balorean jarri du Udalak

Urnietako kirolari eta taldeek emaitza bikainak lortu zituzten 2025ean eta buruturiko lana eta esfortzua balorean jartzeko Kirol Galaren edizio berri bat egin zen abenduaren 23an Saroben. Ekitaldi goxoa izan zen, protagonisten parte hartzearekin kontatu zuena eta Amane Arearen musikaz girotua egon zena.

Urnietarren lorpenak gainera kirol modalitate oso desberdinetan eskuratuak izan dira: Maddi Busto (kulturismoa), Txaro Tomasena (triatloia), Jon Goñez (igeriketa), Eider Cea (gimnasia erritmikoa), Julen Gabirondo (herri kirolak), Nerea Arruti (herri kirolak), Laxaro Oiarbide (ehiza), Iraitz Oiarbide (Ehiza), Imanol Odriozola (pilota), Ander Ezenarro (pilota), Amets Carrera (judo), Borja Seco (judo), Oier Duran (judo), David Blanco (judo) eta Aitor Santos (judo).

Taldee dagokienez, UKE-ko futboleko infantil mailako taldeareantzat izan zen Udalaren oroigarria.



El Ayuntamiento pone en valor el gran trabajo de deportistas y equipos de Urnieta

Tanto los y las deportistas como los equipos de Urnieta obtuvieron excelentes resultados en el año 2025 y para poner en valor el gran trabajo y esfuerzo realizado, se celebró una nueva edición de la Gala del Deporte el 23 de diciembre en Sarobe. Fue un acto sencillo que contó con la participación de las protagonistas y que estuvo amenizado con la música de Amane Area.

Los logros además, han sido cosechados en modalidades deportivas muy diferentes: Maddi Busto (kulturismo), Txaro Tomasena (triatlón), Jon Goñez (natación), Eider Cea (gimnasia rítmica), Julen Gabirondo (herri kirolak), Nerea Arruti (herri kirolak), Laxaro Oiarbide (caza), Iraitz Oiarbide (caza), Imanol Odriozola (pelota), Ander Ezenarro (pelota), Amets Carrera (judo), Borja Seco (judo), Oier Durán (judo), David Blanco (judo) y Aitor Santos (judo).

En cuanto a los equipos, el reconocimiento del Ayuntamiento fue para el equipo infantil de fútbol de UKE.

"Telebistako programak" izango da inauterietako gaia

Otsailaren 14ean ospatuko dira aurtengo inauteriak Urnietan eta Jai Batzordeak erabakita "telebistako programak" izango da gai nagusia.

Beraz, agian, "El conquistador", al-bistegiak, "Mihiluze", "Biba zuek" edo "Herri txiki infernu handi" zuzenean ikusteko aukera izango da, izan ere, sormena lantzeko aukera paregabea eskainiko diete inauteriek beste behin urnietarrei.

"Programas de televisión" será el tema del carnaval

El 14 de febrero se celebrarán los carnavales de este año en Urnieta y la Comisión de Fiestas ha decidido que el tema sea "programas de televisión".

Por lo tanto, tal vez "El conquistador", los informativos, "Mihiluze", "Biba zuek" o "Herri txiki infernu handi" puedan verse en directo, ya que los carnavales ofrecerán una nueva oportunidad para desarrollar la creatividad a los y las urnietarras.





Egape ikastolan lehen urratsak

Egape ikastola

Haurren lehen urteek berebiziko garrantzia dute haurren garapenean. Etapa honetan, haurrak nortasunaren ezaugarriak, adimen eta gorputzaren gaitasunak eta harremanetarako oinarri eta trebetasunak eraikitzen hasiko dira. Hori oinarritzat hartuta, Egape Ikastolan ere Haur Hezkuntzako etapari garrantzi berezia ematea dugu xede. Urnietako haurreskolan lehen bi urteak egiten dituztenek, eraikin berean izango dute aukera 2 urteko geletara jauzi egiteko, espazioari dagokion lotura eta ezagutza ba dute hortaz. Etxetik datozen haurrek, lehen aldiz igaroko dituzte eraikineko ateak, goxo eta norbanakoari egokitutako erritmoak errespetatuz eta zainduz. Haur Hezkuntzako gainerako urteak Lizardi kaleko eraikinean egingo dituzte haur hauek. Eurak izango dira protagonista etapa guztian eta euren behar eta interesak oinarri izango dira eguneroko hezkuntza jardunean. Haurra izango da bere ikaskuntza-prozesua eraikiko duena, hezitzaileon egitekoa berriz, hori gauzatu dadin testuinguru aberats bat sortu eta eskaintzea izango da. Haurrak eskolan etxean bezala sentitu daitezen dugu helburu, goxo, babestua, maitatua eta errespetatua, konfidantzaz euren gaitasunak eraiki ditzaten. Ibilbide honetan, familiaren partehartzea eta elkarlana ezin ahaztu. Eurak baitira gure haurren sostengu garrantzitsuenak, etxeak.



Primeros pasos en la ikastola Egape

Los primeros años del niño/a juegan un papel fundamental en su desarrollo. En esta etapa, los niños y niñas comenzarán a construir sus señas de identidad y sus capacidades intelectuales, corporales y de relación. En base a ello, en Egape Ikastola también pretendemos dar especial importancia a la etapa de Educación Infantil. Quienes cursen los dos primeros años en la haurreskola de Urnieta, tendrán la oportunidad de dar el salto a las aulas de 2 años en el mismo edificio, por lo que ya tienen la conexión y el conocimiento del espacio. Los niños y niñas que vengan de casa pasarán por primera vez las puertas del edificio, y se respetarán y cuidarán los ritmos de cada niño/a. El resto de los años de Educación Infantil los harán en el edificio de la calle Lizardi. Ellos serán los protagonistas de toda la etapa y sus necesidades e intereses serán la base de la práctica educativa diaria. Será el niño/a quien construya su propio proceso de aprendizaje, mientras que el papel de los educadores será crear y ofrecer un contexto rico para que se materialice. Nuestro objetivo es que los niños y niñas se sientan en la escuela como en casa, protegidos, amados y respetados, para que construyan sus capacidades con confianza. Construiremos espacios y acciones que actúen con autonomía, dedicando tiempo a ello. En este recorrido no se puede olvidar la participación y colaboración de la familia ya que ellos son el sustento más importante de nuestros niños y niñas, los de casa.



Batxilergoko ikasleek Alemanian izan dira topaketa batean

Salestarrak-Magale ikastetxea

Abenduaren 5tik 12ra, Batxilergoko 1. mailako ikasleek nazioarteko topaketa batean parte hartu dute Aurichen, Alemanian. Ekitaldi honek hainbat herrialdeetako ikasleak biltzen ditu, hala nola Errumaniakoak, Herbehereetakoak, Finlandiakoak eta Alemaniakoak, elkarrekin lan egiteko proiektu aberasgarri eta multidiziplinar batean.

Ikasleak ekimen politikoen garapenean inguruko jardueretan murgildu dira. Tailer, eztabaida eta talde-dinamiken bidez, egungo gizarte-erronkei buruz hausnartzen dute eta irtenbide berritzaileak proposatzen dituzte. Gainera, topaketak kultura-trukea sustatzen du, nazioen arteko elkar ulertzea eta errespetua indartuz.

Programaren alderdi nagusietako bat komunikazio-gaitasunak hobetzea da. Nazioarteko ingurune batean parte hartzeak atzerriko hizkuntzen erabilera praktikoa, hainbat testuinguru-tan ideiak adieraztea eta elkarlana sustatzen ditu.

Horrelako ekimenek prestakuntza akademikoa sustatzeaz gain, ikasleak maila pertsonalean aberasten dituzte, nazioarteko lagunak eratzen, enpatia eta lankidetzaz bezalako balioak finkatzen lagunduz eta, jakina, ingeles-maila hobetuz.



Del 5 al 12 de diciembre, los alumnos y alumnas de 1º de Bachillerato han participado en un encuentro internacional en Aurich, Alemania. Este evento reúne a estudiantes de diferentes países, como Rumanía, Países Bajos, Finlandia y Alemania, para trabajar conjuntamente en un proyecto enriquecedor y multidisciplinar.

Mediante talleres, debates y dinámicas de grupo, reflexionan sobre los desafíos sociales actuales y proponen soluciones innovadoras. El encuentro promueve el intercambio cultural, fortaleciendo la comprensión mutua y el respeto entre naciones.



Edukiontzia behar bezala erabiltzeko aholkuak

Urnieta herri garbiagoa eta ordenatuagoa izan dadin, garrantzitsua da herritar guztiok edukiontzia ondo erabiltzea eta hondakinak behar bezala uztea.

Jarraian, gomendio batzuk.

- Zaborra edukiontzia barruan jarri. Kamioi biltzaileak sistema automatizatu bat erabiltzen du, eta, beraz, edukiontzia barruan dagoena bakarrik jasotzen du.
- Ez bota hondakin idorrik, hala nola kricketak, metalak, zurak, inausketa-hondarrak, etab. Edukiontzia ez dira egokiak hondakin horietarako, eta bilketa-ekipoa kaltetu dezakete.
- Itxi edukiontzia. Hondakinak bota ondoren, itxi edukiontzia. Horrela, usain txarra saihesten da eta, euria egiten duenean, ura sartzetik babesten da.
- Toallatxo hezeek eta komunera botatzen diren beste hondakin batzuek arazoak sortzen dituzte estolderia-sareetan eta araztegiatan.
- Ahozapi erabiliak, paper zikinak, konpresak eta pixoihalak. Konposizioan papera dute, baina ez dira edukiontzia urdinera bota behar. Elementu horiek edukiontzia grisera utzi behar dira.
- Kutxak tolestu edukiontzia urdinean sartu aurretik, behar baino leku gehiago har ez dezaten.

Consejos para el buen uso de los contenedores

Para que Urnieta sea un pueblo más limpio y ordenado es importante que todas y todos los vecinos hagamos un buen uso de los contenedores y depositemos los residuos de manera correcta.

A continuación una serie de recomendaciones.

- Poner la basura dentro del contenedor. El camión recolector utiliza un sistema automatizado por lo que recoge solo lo que está dentro del contenedor.
- No arrojar residuos áridos como cascotes, metales, maderas, restos de poda, etc. Los contenedores no son aptos para estos residuos y pueden dañar el equipo recolector.
- Cerrar el contenedor. Luego de depositar los residuos tapar el contenedor, así se evita el mal olor y se protege de la entrada de agua en caso de lluvia.
- Las toallitas húmedas y otros residuos que se tiran al váter provocan problemas en las redes de alcantarillado y en las depuradoras.
- Servilletas usadas, papeles sucios, compresas y pañales. Tienen papel en su composición, pero su contenedor no es el azul. Estos elementos hay que depositarlos en el contenedor gris.
- Plegar las cajas antes de introducir las en el contenedor azul, para que no ocupen más espacio del necesario.

URNIETAKO KZ-GUNEA | 943 023 682 | www.kzgunea.eus

Urtarrileko ordutegia / horario de enero: 9:00-13:00

Astelehenetik ostiralera hilabeteko lehen hamabostaldian / De lunes a viernes la primera quincena del mes

**IKASTARROAK (ASTELEHENETIK OSTIRALERA):
CURSOS (DE LUNES A VIERNES):**

BIDEOKONFERENTZIA / VIDEOCONFERENCIA:

Online izapideak Osakidetzarekin / Trámites online con Osakidetza • Mekanografia. Ikasi hutsetik / Mecanografía. Aprende desde cero • Editatu bideoak zure smartphonearekin / Edita vídeos con tu smartphone • Google Argazkiak. Antolatu hodeian zure argazki guztiak / Google Fotos. Organiza todas las fotos en la nube • Adimen artifiziala, ChatGPT eta haren alternatibak / Inteligencia artificial, ChatGPT y sus alternativas • YouTube. Bideoak ikustea baino gehiago / YouTube. Mucho más que ver vídeos • Google Maps. Zure ibilbiderik onena arakatu eta aukeratu / Google Maps. Visualiza y planifica tu mejor ruta • Musika aplikazioak zure smartphonean / Aplicaciones de música en tu smartphone • LibreOffice Impress. Zure aurkezpenak sortu / LibreOffice Impress. Crea tus presentaciones • LibreOffice Writer. Zure testu dokumentuak sortu / LibreOffice Writer. Crea tus documentos de texto • LibreOffice Calc. Zure kalkulu orriak sortu / LibreOffice Calc. Crea tus hojas de cálculo • Informatika hodeian. Ezagutu zer den hodeia / Informática en la nube. Conoce qué es la nube • Google Calendar. Zure denboraren kudeaketa hobetu / Google Calendar. Gestiona mejor tu tiempo • Gmail. Posta-elektronikoa baino gehiago / Gmail. Mucho más que un correo electrónico • Google Drive. Bildu eta partekatu zure artxiboak / Google Drive. Almacena y comparte tus archivos • Facebook zure smartphonean / Facebook en tu smartphone • Instagram. Partekatu zure argazki eta bideo onenak / Instagram. Publica tus mejores fotos y vídeos • Erosketa eta ordainketa segurua Interneten / Compra y pago seguro en Internet • Zibersegurtasuna eta pribatutasuna sarean / Ciberseguridad y privacidad en la red

AURREZ AURREKOA / PRESENCIAL:


Smartphoneak eta tabletak. Zure Android gailua erabiltzen ikasi / Smartphones y tablets. Aprende a utilizar tu dispositivo Android

URRUNEKOA / A DISTANCIA:

Garatu zure potentziala gaitasun digitalen bidez / Desarrolla tu potencial mediante las competencias digitales • Android Sistema Eragilea / Sistema Operativo Android • Zure argazkiei etekin handiena atera GIMPekin / Sácale todo el provecho a tus imágenes con GIMP • Ikasi ezazu ShotCut-ekin bideoak ukitzen / Aprende a retocar vídeos con ShotCut • Ofimátika orokorra. LibreOffice / Ofimática general. LibreOffice • Lehenengo pausoak marketin digitalean / Iniciación al marketing digital • Dropbox. Gorde zure artxiboak hodeian / Dropbox. Guarda tus archivos en la nube • Sare sozialak. Facebook, X eta YouTube / Redes sociales. Facebook, X y YouTube • Erosketa eta salmenta segurua Internet bidez / Compras y ventas seguras por Internet

Agenda kulturala

Urtarrila



HAURRENTZAKO PUZGARRIAK

Urtarrilak 3, 11:00/13:00 eta
16:30/18:30 - Kiroldegia



ANTZERKIA: "SOMOS POLVO DE ESTRELLAS"

Urtarrilak 10, 19:00 - Sarobe

Sarrera: doan



FILM ESZENIKOA: "SCROOGE ETA MAMUAK"

Urtarrilak 25, 17:30 - Sarobe

Sarrera: 3 euro



KULKI JOLASAK

Urtarrilak 4, 11:00-13:00 -
Kiroldegia



TXOTX IREKIERA EKITALDIA

Urtarrilak 16, 12:00 - Eula
sagardotegia

*Gonbidapenarekin soilik



KANTAZAUNEN KANTU KALEJIRA

Urtarrilak 30, 19:00 - San Joan
plaza



ANTZERKIA: "TRAJEA"

Urtarrilak 7, 19:00 - Sarobe

Sarrera: 7 euro



ODOL EMATE SAIOA

Urtarrilak 23, 16:30/20:30 -
Gaztelekua

*Txanda aurretik hartu behar da:

943 00 78 84



KANTAZAUNEN KANTU KALEJIRA

Otsailak 4, 19:00 - San Joan plaza